

Donostia, 2017ko maiatzaren 19a

IDAZKARI NAGUSIARI

HIRIKO ARTEARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Amaia Martin Garinek, Irabazi Donostia taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. Artikuluan oinarrituta, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, hil honetan Batzordean egin zen interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Apirileko azken asteburuan jakin genuen Antiguoa auzoan Mikel Laboaren omenez eginiko mural bat desagertu zela. Hori gertatu ondoren, alkateak adierazi zuen hiriko mantentze lanak egiten dituen enpresarekin jarriko zela harremanetan, gertatutakoa argitze aldera. Ondoren, udal gobernuak egiaztatu du murala berriz jarriko dela eta kostuak enpresak ordainduko dituela.

Hori jakinarazi ondoren eta gobernuak ezer egin aurretik, murala berriro agertu da Donostiako kaleetan; antza, lehenengo murala egin zuen autore beraren eskutik. Hala ere, aipatu behar da Laboaren murala ez dela izan hiriko mantentze lanak egiten dituen enpresaren “gehiegizko arretak” eragindako kaleko artearen erakusgarri bakarra. Bestelako adierazpen artistikoak ere ezabatu izan dira; Kultur Hiriburutzaren aldia eta hiriko puntu garrantzitsuetan gauzatutakoak, besteak beste.

Aintzat hartuta indarreko ordenantzak hertsiki betetzeak eragina izan duela bai Udalaren baimena duten jarduketetan bai baimenik ez dutenetan, uste dugu beharrezkoa dela irtenbideak bilatzea hiriak kaleko artearen lagin horiek osatzen duten ondarea gal ez dezan. Azpimarratu behar da hau ez dela hutsetik hasten den lana; izan ere, udal gobernuak agindutako azterlanek obra horietako batzuen kokalekua identifikatzea lortu dute.

Era berean, azterlan hori egiteko, herritarren ekarpena interesekoa izan daiteke; izan ere, herritarrak dira euren auzoak hobekien ezagutzen dituztenak. Hortaz, herritarren partaidetza aktibatzeak katalogoa osatzen lagun dezake.

Hori dela eta, honako kontrol mozio hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio Donostiako hiriko artearen laginak jasotzen dituen katalogoa gauzatzeko.
2. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio beharrezkoak diren bitartekoak bideratzeko hiriari kontserbatzea interesatzen zaion kaleko adierazpen artistikoak babesteko, beren balio kultural edo artistikoa dela eta.
3. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio herritarren partaidetzarako prozedurak irekitzeko, hiriko artearen katalogoari ekarpenak egin ahal izan diezazkioten.

Izpta.: Amaia Martin Garin,
Irabazi Donostia udal taldeko bozeramailea.